

PERU TA MARIDXE

Ohikoak ziren Peru eta Maria bikotearen ipuinak. Peru gaixoa artaburu samarra izaten da, eta aldrebes egiten ditu beti Mariaren aginduak.

Hau, Juanita Alberdiri jasoa da 1991n.

Bizi zien baten andra-gizon batzuk, da euki abien ume txiki bat, eta andriek ez aben gure ixeten juetie plazara errekaduek eitten. Jostorratzak falta dxakozan, da gizona bialdu aben andraorrek, eta allegau zaniendendara ahaztu ein dxakon zeren bille juen zan, da atzera etxera juen zan andrieri preguntetan.

Da andriek esa'otsen:

—Bueno, bueno, zugaz ezi'leike. Neu juen biko naz, eta zainduixu umie, lo dau te. Da ollolokie be ezarritte dau arrautzakin, da kontuen eukin aber noz jagitten dan arrutzak hotzitu barik barriro habidxara juen daitten. Da ogidxe'pe laban dauz, da atara ogidhek labatik.

Eta badau gizonori, da umiori hasi dxako negar da negar da negar. Da ezi'aben ixilddu umiori, da ollolokie be jagi zan habidxatik, da juen dxako beheko solo barrenetara. Da ogidxe'pe laban eukezan. Da akordau dxakon lelengo trago bat txakolin ein bi'abela...

Da juen zan trague txakoliñe eitten, da kortxuek urte'otsen. Da zer ei' aben? Txakurren buztana sartu'otsen zerien barrikieri. Da gero ollue ekarteko hasi zan txakurrei diarrez:

—Pintto, Pintto, etorri hadi! —solotik deittu'otsen gizonorrek.

Da zer ei aben ba txakurrek? Aiñeketan juen... da barrikada txakoliñe hutsitu ein dxakon. Da gero...

—Enel! Ogidxe'pe atarateko esa'oste niri andriek!

Da juen zaniendendara, ba, dana barrikada ezkatza txakoliñez beteta euki aben. Da labatik atara ogidhek, da, pasetako hankak busti barik, han ipini abezan. Eta gero umiori atzera be negarrez hasi dxakon. Negarrez hasi dxakonien, konturatu zan jaio barridxe zana, da buruen zelan garaunek jote'otsien da:

—Koittae! Zoldittue dekozu...

Da, zer ei'otsen? Jostorratzak sartu'otsezan umieri han buruen, garaunetan joten dauen lekuen, eta gero, ba, juen zala ta... umie, umie lo dau.

Da juen zan andraori, tte umie hildde euki aben, jostorratzak sartu'otsezan da... Ogidhek eukezan ipinitte pasuek eindde, pasetako, ez hainkak bustittek... Da txakolin barrikiori hutsittute... Da esa'otsen:

—Zugaz ezi'leike, bai... da ni hemendik banue...

—Ba, neu be banator —esa'otsen gizonak.

—Ez, zu ez zara etorriko, zu etxien geldittuko zara.

—Bai, Maridxe, banue.

—Ez, Peru, ezatoz... Ba, hartixu atiori!

Da esan gure ixé'otsan atie zarratzeko, da bestiek atara aben zeretik... txorittik. Da atiori lepuen hartute gizonori andrien atzien juen zan, andrie zestilla bategaz, da bidxek alkarren atzien, da...

—Ai! Hau da kantsaziñue dekuana! -esa'aben andriek.

Da gizonak diñotso:

—Zuk zer daruzu ba? Zestilla ba'pañe eztaozu te... Da nik... ez'tostezu esan ba atie hartzeko!

Da, ba, geldittu zien deskantsetan. Horretan, deskantsetan dauzela arbolape baten, hiru-lau gixon argittu zien lapurretan ei'abienak, da diru-kontetan euezan. Da gero gotti'pera zerorrek, Peruek -arbola ganera igo aben sagarren bat hartzeko, da Peruorrek zer ei'otsien? Goitti'pera txixe. Da lapurrok esa'abien:

—Hau da bedeinkaziñuen ederra, Jangoikuek emonda!

Da horretan, ba:

—Oin kaka ein bi'otsiet, Maridxe.

—Ez eixu eiñ holakorik.

—Ba, ein bi'otsiet.

Da gizonorrek plasta-plasta kaka... Ta:

—Honek usein txarra dxekek!

Da ariñeketan martxau abien dirue bertan itxitte. Da gero, ba, diruek eurek hartu ta atzera etxera mobidu zien.

